**ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS DEL SEÑORÍO DE VIZCAYA**

**BIZKAIA JAURERRIKO ABOKATUEN BAZKUN OHORETSUA**

| | |
|---|---|
| Bilbao, 22 de marzo de 2017 | Bilbo, 2017ko martxoak 22 |
| Estimado/a compañero/a: | Lankide estimatua: |
| Como ya informamos en la anterior circular de 3 de marzo de 2017, la Autoridad Vasca de la Competencia incoó, en septiembre de 2015, un Expediente Sancionador al Colegio como consecuencia del sistema de organización de los Servicios de Asistencia Jurídica Gratuita (Turno de Oficio y Asistencia al Detenido). El expediente se inició por la denuncia de una Abogada que nos solicitó el alta en el Turno de Oficio, al tiempo que se mantenía en el de Madrid. El Colegio, aplicando la normativa vigente, que exige contar con despacho profesional principal o habitual en el ámbito territorial del mismo, acordó no aprobar la incorporación de la Letrada al Turno de Oficio y Asistencia al Detenido. | Pasa den martxoaren 3ko zirkular baten bidez jakinarazi genizuenez, Lehiaren Euskal Agintaritzak Abokatuen Bazkunari zehatzeko prozedura bat ireki zion, doako laguntza juridikoaren inguruko zerbitzuen antolaketa zela eta (ofiziozko txanda eta atxilotuari laguntza). Espedientea abiarazteko arrazoia hau izan zen: abokatu batek gure ofiziozko txandan egoteko eskaera egin zuen baina aldi berean Madrilekoan jarraitzeko asmoa zuen. Gure Bazkunak, indarrean dagoen legeria aplikatuz (hau da, legeriak eskatzen du bulego nagusia edo ohiko bulegoa Bazkunaren eremuari dagokion lurraldean izatea), ezetza eman zion eta, ondorioz, abokatu horrek salaketa jarri zuen gure aurka. |
| Durante la instrucción del expediente iniciado, respondimos puntual y profusamente a cuatro requerimientos de información de la AVC. En diciembre de 2016, nos notificaron el Pliego de Concreción de Hechos contra el que, por nuestra parte, se presentaron las preceptivas alegaciones. El 7 de Febrero de 2017 la AVC nos notificó la propuesta de resolución en la que se declaraba la existencia de una infracción muy grave por parte del Colegio, por la supuesta realización de conductas prohibidas por la Ley de Defensa de la Competencia, propuesta frente a la que presentamos nuevas alegaciones. | Espedientea izapidetu bitartean, Lehiaren Euskal Agintaritzak egindako lau informazio-errekerimenduei behar bezala erantzun genien. 2016ko abenduan Egitateak Zehatzeko Plegua jakinarazi ziguten eta guk alegazioak aurkeztu genituen. 2017ko otsailaren 7an ebazpen-proposamena jakinarazi ziguten; horren arabera, Bazkunak arau-hauste oso larria egin du, Lehia Defendatzeko Legeak debekatutako jardunak gauzatu omen dituelako; ondoren, Bazkunak beste alegazio batzuk aurkeztu zituen. |
| Finalmente, por medio de la presente ponemos en vuestro conocimiento que, en el día de ayer, 21 de marzo de 2017, la AVC | 2017ko martxoaren 21ean, hau da, atzo —eta mezu honen helburua horren berri ematea da—, Lehiaren Euskal Agintaritzak emandako ebazpenaren jakinarazpena jaso genuen: 100.000 euroko diruzko zehapena |

ha notificado al Colegio la Resolución por la que nos ha impuesto una sanción económica de 100.000 euros, además de la obligación de modificar la organización del Turno de Oficio y Asistencia al Detenido con la finalidad de permitir la incorporación al mismo de todos los Letrados y Letradas de España que lo soliciten.

El Colegio, en varias ocasiones a lo largo del expediente sancionador, ha presentado alegaciones profusas y detalladas en defensa de un régimen de organización de los Servicios de Asistencia Jurídica Gratuita que tiene como único objetivo la prestación de un servicio público de calidad y cercano a los ciudadanos carentes de recursos económicos, como garantía de su acceso al derecho de defensa y a la tutela judicial efectiva.

La AVC, en su resolución, ha ignorado que el Colegio se limita a cumplir los requisitos establecidos en la Orden Ministerial de 3 de junio de 1997, que regula el requisito de contar con residencia habitual y despacho profesional en el ámbito territorial correspondiente, del mismo modo que ha desatendido el precedente de la reciente sentencia del Tribunal Superior de Justicia de Andalucía, que acordó que la organización territorial del Turno de Oficio es adecuada y proporcional al objetivo constitucional de garantizar el derecho de defensa de las personas sin recursos. En idénticas circunstancias, el Tribunal para la Defensa de la Competencia de la Comunidad de Castilla y León ha entendido, en una reciente resolución, que la misma organización del Turno de Oficio por parte del Colegio de Abogados de Valladolid está amparada por la citada Orden Ministerial, acordando no imponer ninguna sanción a dicho Colegio y elevar la

jarri digute; halaber, laguntza juridikoaren inguruko zerbitzuen antolaketa aldatu behar dugu, hain zuzen ere, Espainiako edozein legelarik, nahi izanez gero, txandan sartzerik izateko.

Bazkunak espediente zehatzailean behin baino gehiagotan alegazio sakon eta zehatzak aurkeztu ditu, doako laguntza juridikoaren inguruko zerbitzuen antolaketa defendatzeko, zerbitzu horren izaeraren eta antolaketaren funtsa kalitatezko zerbitzu publiko hurbila izan behar delako, izan ere, doako laguntza juridikoa ematen zaie baliabide nahikorik ez dutenei, justiziara benetan iristeko berme moduan beharrezkoa denean.

Ebazpena emateko orduan, Lehiaren Euskal Agintaritzak ahaztu du Bazkunak 1997ko ekainaren 7ko ministro-aginduak ezarritako betekizunak bete dituela. Ministro-agindu horrek dioenez, beharrezkoa da ohiko bizilekua eta bulegoa dena delako lurralde eremuan izatea; halaber, Lehiaren Euskal Agintaritzak ez du kontuan hartu Andaluziako Auzitegi Nagusiak orain dela gutxi emandako epaia, non ofiziozko txandaren lurraldearen araberako antolaketa egokia eta proportziozkoa jotzen duen, baliabide nahikorik ez dutenen defentsa-eskubide konstituzionala bermatze aldera. Are gehiago, Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoko lehiaren inguruko erakundeak berriki esana du —orain dela gutxi emandako ebazpen batean— ofiziozko txanda antolatzeko xedearekin Valladolideko abokatuen elkargoak ezarritako sistema ministro-aginduaren araberako dela, eta, horrenbestez, ez dela bidezkoa inolako zehapenik jartzea; halaber, ebazpenak dioenez, gai hau CNMCra (Comisión Nacional de los Mercados y

| | |
|---|---|
| cuestión a la CNMC (Comisión Nacional de los Mercados y Competencia) con objeto de que la misma valore la posible impugnación de la Orden o inste su posible adaptación.<br><br>La Junta de Gobierno considera que la resolución sancionadora de la AVC es total y absolutamente injusta, por lo que procederá a ejercitar las acciones judiciales que le asisten en defensa de la actual organización del Turno de Oficio y Asistencia al Detenido.<br><br>Recibe un cordial saludo,<br><br>**Resolución Sancionadora AVC**, | Competencia) bidali dute, azken horrek, beharrezkoa balitz, ministro-aginduaren aurka egin dezan edo ministro-agindua egokitu dezan.<br><br>Gobernu Batzak uste du Lehiaren Euskal Agintaritzak emandako ebazpena erabat eta goitik behera bidegabea eta zuzengabea dela. Beraz, zerbitzuaren oraingo antolaketa defendatzeko dituen akzio judizialak egikarituko ditu.<br><br>Jaso nire agur adeitsua,<br><br>**LEAren ebazpen zehatzailea**. |

***CARLOS FUENTENEBRO***
***DECANO/ DEKANOA***